

KUL TUR AGENDA

Aitzoain
Añezkar
Artika
Ballariain
Berriobeiti
Berrigoiti
Elkarte
Larragefa
Lotza
Oteitza

BE RRIO BEI TI

Azaleko irudiak: Amico taldea abuztuaren 3an, ostiralean, Larragetako pilotalekuan arituko da.



Argitaratzailea: Berriobeitiko Udala
L.O.: NA 253-2015
Doan banatzen da



» OHARRAK

PUNTUALTASUNA

Ikuskizuna hasi ondoren, ezin izanen da inor aretoan sartu.

SOINU-SEINALEAK

Aretoan sartzerakoan deskonektatu beharko dira.

GRABAKETAK ETA ARGAZKIAK

Debekatuta daude.

JANARIAK ETA EDARIAK

Aktoreek eta ikusleek merezi duten begiruneagatik, barne-ikuskizunetan ezin izanen da jan, ezta edan ere.

ITZULTZEAK

Sarrera bat erosteko ordaindutako dirua itzultzeko arrazoi bakarra ikuskizuna bertan behera uztea izanen da.

SARRERAK

Zenbakidun sarrerak.

» TXARTEL SALMENTA

Ikuskizunetarako txartelak María de Maeztu Kultur Etxean erosten ahalko dira **emanaldi bakoitzaren aurreko astean. Ez da telefono bidezko erreserbarik onartuko.**



**NAFARROAKO
ANTZOKI
SAREA**

LEIHATILAN

(Kultur Etxeko Atezaindegian). Ikuskizun bakoitza hasi aurreko ordubete lehenagotik.

ALDEZ AURRETIK

www.berrioplano.es webgunean eta Kultur Etxeko atezaindegian, 16:00etatik 21:00etara

» KULTUR AZPIEGITURAK

KULTURA ZERBITZUA

Udaletxean

Tel: 948 30 31 29

Posta elektronikoa:

cultura@berrioplano.es

**MARIA DE MAEZTU
KULTUR ETXEA**

Iturribidea, 1. Artika.

Tel: 948 38 32 54

Kafetegi-Taberna

Tel: 948 57 14 34

LIBURUTEGI PUBLIKOA

María de Maeztu Kultur Etxean

**Udako Ordutegia
(ekainak 15-irailak 14):**

8:30etatik 14:30etara

Tel: 948 38 26 22

Posta elektronikoa:

bibliarc@cfnavarra.es

**ERABILERA ANITZEKO
ERAIKINA**

BERRIOBEITI

Nuestra Señora de la Purificación, 11.

Ordutegia: 10:00etatik 22:00etara.

Tel: 948 59 62 23

ARTIGUNE I

ARTIKA Leonor Akitaniakoa, 30

Informazioa:

948 30 31 29

ARTIGUNE II

ARTIKA Leonor Akitaniakoa, 26

Informazioa:

948 30 31 29

MUSIKA ESKOLA

María de Maeztu Kultur Etxean **Tel:** 616 72 52 18

Posta elektronikoa:

orreamusika@gmail.com

KONTZEJUEN ETXEA

AITZOAIN:

Oronsuspe auzoa k/3

AÑEZKAR:

San Andres k/ 6

Tel: 618 77 84 61

ARTIKA

Kontzeju Etxea San Marcial K/ 9

Tel: 948 38 37 93

“María Domínguez”

Gizarte-Etxea María

Domínguez K/3

Tel: 948 38 37 93

BALLARIAIN:

San Pedro k/ z/g

BERRIOGOITI:

Santa Eulalia k/39

Posta elektronikoa:

concejoberriosuso@yahoo.es

BERRIOBEITI: Kale

Nagusia k/ 2

ELKARTE:

Purificación k/ 16

LARRAGETA: San

Esteban k/ z/g

Tel: 948 30 21 59

LOTZA: San Joan k/ z/g

Tel: 690 68 68 50

OTEITZA: San Joan k/ 6

Tel: 651 65 83 14

» KULTUR ETXEA, FACEBOOKEN

JARRAIGUZU!

Kultur Etxea
facebooken

» LIBURUTEGIA UDAN

UDAKO ORDUTEGIA

Artikako liburutegi publikoa 8:30etik 14:30etara dago zabalik uda partean (irailaren erdira arte). Zerbitzuak: liburuak eta ikus-entzunezkoak mailegutan uztea; aldizkariak eta eguneroko egunkariak; internet eta posta elektronikoa; arreta eta aholkularitza uneoro. Artikako liburutegi publikoa Nafarroako Liburutegi Publikoen Sarean dago sartuta, eta katalogoa www.navarra.es webean dago kontsultagai.

Ekainaren 15etik irailaren 14ra bitartean

Udako ordutegia:

08:30 - 14:30

bibliarc@navarra.es

948 38 26 22

» 2018-2019KO GUZTIONDAKO IKASTAROAK

IZEN-EMATEA / IRAILAK 12 - 17

Zumba, yoga, pilates, judo, pilota, gimnasia erritmikoa, eskalada, swing, kosmetika naturala, eskulanak. Jarduerak hainbat tokitan egingen dira: Berriobeitiko Erabilera Anitzeko Eraikinean, Berriobeitiko pilotalekuan, Artika Berriko Artigune I eta II aretoetan, Lotzako eta Berriogoitiko Kontzeju Etxeetan, eta Rocópolis rokodromoan.

Telefonoz
012 – Infolokal
Izena emateko ordutegia:
8:00 - 19:00
Ordainketa: txartel bidez



» HERRIKO FESTAK

LARRAGETA / ABUZTUAK 3, 4 eta 5

BERRIOGOITI / ABUZTUAK 24, 25 eta 26

AÑEZKAR, ELKARTE eta ARTIKA / IRAILAK 7, 8 eta 9

LOTZA / IRAILAK 14, 15 eta 16

» ZENDEAREN EGUNeko BAZKARIA (AÑEZKAR, IRAILAK 29)

TXARTELAK / IRAILAK 17 - 21

Urtero bezala, Zendearen Eguneko ekitaldi nagusia senidetasunezko bazkaria izanen da. Aurten, Añezkarko udal pilotalekuan egingen da. Sarrerak Udaletxean erosi behar dira, Berribeitin, irailaren 17tik 21era.

Erroldatuentzat

Non: Bulego orokorretan, Berribeitik Udaletxean (Udaletxe plaza,1)

Ordutegia: 09:00-14:00

Telefonoa: 948 30 31 29

Prezioa: 18 euro, helduendako menua / 10 euro, haurrendakoa



» ZENDEAREN EGUNA

AÑEZKAR / IRAILAK 29

Zendeako 10 herrien senidetasunezko jaia irailaren 29an egingen da Añezkarren. Foiletoa etxez etxe banatuko da programazioaren berri emateko.

03 OSTIRALA

KALEKO IKUSKIZUNA

“Amico on the beach”

AMICO

Larragetako pilotalekua

Ordua: 18:30

Sarrera: librea

Adina: jende guztiarentzat

Iraupena: 55 minutu



Musikaz eta umorez blai agertuko zaizkigu bi pertsonaia bitxi. Oporretan dabilta, eta hortxe ari dira jolasean Tony Manero izan nahian, edo surflari, hondartzako zaintzaile, boxeolari, giza igel, marinel edota igeriketa

sinkronizatuaren erregina izan nahian. Ion eta Txori Amico berriz ere murgilduko dira keinu- eta mugimendu-hizkuntzan, 5 eta 105 urte arteko gazteendako ikuskizun freskagarria eskaintzeko.

24 OSTIRALA

KALEKO IKUSKIZUNA

“Dantzateke”

ZIRIKA ZIRKUS

Berrigoitiko pilotalekua

Ordua: 18:30

Sarrera: librea

Adina: jende guztiarentzat

Iraupena: 60 minutu



Zinemako gizon handietan handienak -Antonello Fellinik- zuen herria aukeratu du urteko bideo-klipa grabatzeko. Lehenbizi,

Madonna izan zen; gero, Lady Gaga; geroago, Beyoncé, eta orain, zuen herrian, Antonello Felliniren bideo-klipal! Prest al zaudete?

01 LARUNBATA

BTT MARTXA

Ezkaba mendiko VI. erronka

BERRITXACO KLUBA

Berritxaco Klubak Ezkaba mendiko BTT erronkaren seigarren martxa antolatu du. Irailaren lein egingen da, larunbatarekin. Guztira, 5,8 kilometroko zirkuitua izanen da, eta parte-hartzaileek ahalik eta birarik gehien eman beharko dituzte ekitaldiak irauen duen lau orduetan. Berritxacok bere webaren eta blogaren bidez emanen ditu xehetasun guztiak, bai probaz, bai sistemaz, bai izena emateko egutegiaz.

5,8 Km-ko zirkuitua

Ordutegia: 09:00-13:00

Laguntzaileak: Berriobeitiko Udala eta Artikako Kontzejua

Argibideak:

<http://www.desafiosancristobal.com>



2 IGANDEA

KROSA ARTIKA BERRIN

Artika Challenge III. Herri Lasterketa

KORRIKOLARIS ARTIKA KIROL KLUBA

Artika Berri

Ordua: 10:00

Izen-ematea: ekainaren 18tik abuztuaren 31ra, www.quieroundorsal.es

Laguntzaileak: Artikako Kontzejua



Korrikolaris Artika kirol klubak hirugarren Artika Challenge herri lasterketa antolatu du. Probak 7,14 km izanen ditu, eta % 18,8ko malda maximoa. Artika Berriko María Domínguez plazatik abiatu eta Berriobeitin nahiz Berriogoin

barna joanen da. Bi maila daude: absolutua, 10:00etan hasita, eta haurrak (aurre-benjaminak, benjaminak, kimuak eta infantilak), 11:30ean. Argibideak: **Facebook** eta Artikako Korrikolaris klubaren **twitterra**.

PROGRAMAZIOA IRAILA

7

OSTIRALA

KALEKO IKUSKIZUNA

“Km 0”

LA BANDA



Bi bidaiari tren-geltoki batera iritsi dira. Trenaren irteera atzeratu da, eta itxaronaldia hasi da, eta horrekin batera, nekea eta logura. Esnatzean, mapa zati bat aurkituko dute, eta bila hasiko dira. Pistei jarraiki, sekulako tokietara iritsi eta sentsazio berriak aurkituko dituzte.

Baina, azkenean, bidaiak abialekura eramanen ditu. Zergatik? Erantzunaren bila ari direla, berriz ere loak hartuko ditu. Trenaren txutxutxuuaak berriro esnatuko ditu. Zer egingen dute? Trena hartu edo ametsetan segitu?

Añezkarko ikuskizuna

Ordua: 17:00

Adina: jende guztiarentzat

Sarrera: librea

Iraupena: 50 minutu

9


IGANDEA

KALEKO IKUSKIZUNA

“Primos”

ZIRIKA ZIRKUS

Mona eta Konfuso anaia-arrebak dira. Beto eta Pantxi ere, eta denak zirku-artisten antzinako familia baten ondorengoak dira. Zirku-saio izugarri bat jaso berri dute herentzian, haien bi arbasok - Mirenek eta Josunek- duela 200 urtetik gora sortua. Oso ongi egin nahi dute, baina ez dira guztiz fidatzen, osaba Pakoren postal bat iritsi berri zaielako; osabak esaten die ez dela beraien lanaz fio, eta edozein unetan etorriko dela haien lana berrikustera. Publikoak lagunduta, saio guztiak ongi egiten saiatuko dira, hala nola malabareak,



klakea, akrobaziak, abestiak eta beste, arbasoen aholkua sekulan ahaztu gabe: “publikoak gozatzeko badu, funtsezkoa da zuek primeran pasatzea”.

Elkarteko plaza

Ordua: 18:00

Adina: jende guztiarentzat

Sarrera: librea

Iraupena: 60 minutu

IRAILAK 10 -28

ERAKUSKETA

Argazki ikastaroa

María de Maertu Kultur Etxea (Artika)

Ordutegia: 9:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera, irailaren 14ra arte. 16:00etatik 21:00etara, irailaren 28ra arte. Larunbat eta jaiegunetan, ikuskizun orduetan



Erakusketan ikusgai daude Artikako Kontzejuak antolatutako bi ikastaroetako parte-hartzaileek egindako argazkiak.

16

IGANDEA

KALEKO IKUSKIZUNA

“¿Y Pepu?”

CIRCO DABITXI

Dabitxi bekaduna da, Pepu Pepiolescu irakaslearen jarraitzaile amorratua. Pepu zientifiko ospetsua da eta zirkuan oinarritzen da fisika kuantikoko probak praktikan jartzeko. Dabitxi, bere aldetik, beti prest dago bere esperimenduak bururaino eramateko. Gaur, ordea, zerbait gertatu da, irakaslea ez baita etorri! Nola moldatuko da Dabitxi? Ikusleren batekin saiatuko al da esperimendatzen? Kontatuko al du irakaslearen sekreturen bat? Dabitxi bakarka dabil zirku zientziaren munduan eta laguntza

Lotzako plaza

Ordua: 18:00

Adina: jende guztiarentzat

Sarrera: librea

Iraupena: 50 minutu



behar du; bata bestearen atzetik etorriko dira malabareak, bai diabloekin bai tenis-erraketekin eginda, edo pilota eta eskailera gaineko orekak, su-saioak, betiere umore handiz eta irri ugariz ziprztindurik.